

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Teo Goitiz Izurieta

*Lekeitio,
Bizkaia
(1932-2021)*

Aurkibidea



Biografia



1932an jaio zen. Gurasoak ere lekeitiarrak zituen, Arranegikoak; aita eta neba arrantzaleak ziren eta ama dendarik denda produktuak banatzen aritzen zen. Gerra aurretik Bergara kalean bizi ziren, eta gero, kofradiak bere aitari utzitako etxe baten bizi izan ziren moilan bertan. Gerran 5 urte zituela, ama eta bera "Nuestra Señora del Socorro" itsasontzian ebakuatuta joan ziren Portugaletetik Santanderrera eta handik Perigeux-era (Frantzia); 9 hilabetez egon ziren han. Aita eta neba Baionan egon ziren, baina beraiek ez zuten jakin. Lekeitiora bueltatzerakoan etxea zarratuta, konfiskatuta, aurkitu zuten, eta etxera bueltatu arte osaba-izeko batzuen etxean egon ziren ama eta biak. Bere aita eta neba denbora batera itzuli ziren. Herri eskolan ibili zen 12 urtera arte, goizetan ohiko ikasgaiak ikasten eta arratsaldez joste-lanak... 12 urtegaz ogia egiten hasi zen okindegian, eta arratsaldeetan mojetara joaten zen idazteko makina erabiltzen ikastera. 14 urtegaz neskame joan zen Ondarroako familia batera, baina hilabete baino ez zen egon. Lan askotan aritutakoa da, baina ia beti itsas munduarekin lotuta: Kabanen behar ezberdinetan, Garavillan, Aulestin atuna zuritzen eta bertakoei lana irakasten, moilan arraina kargatzen, frontoia garbitzen, etxean udatiarrak hartzen... Kabanen 22 urtez aritu zen, hori dela eta, bertako hainbat eta hainbat kontu kontatzen ditu. Senarra ere lekeitiarra du.

Zintak

LEK-009

- **Proiektua:** Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Erdozia, Olatz - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-04-28
- **Iraupena:** 106 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Goitiz Izurieta, Teo | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com